

# Zeren bila dabil Arregi?

**HAMASEI** hilabete bete berri ditu «Euskaldunon Egunkaria»-k.


Denboraldi luze honetan Eusko Jaurlaritzaren sailetatik zortzik, ez digute publizitaterik sekula kontratatu, hasiera hasieratik «Egunkaria»-ri publizitatea ukatu bait diote.

1991 urteko Jaurlaritzaren sail guztien publizitate arruntaren kontratazioa bakarrik aztertuz gero, edizio orokorretan argitaratuari dagokionean, «Deia» eta «El Correo Español»-i urtean hogeitamar milioitik gora, «El Diario Vasco»-ri hogeitamar milioitik gertu eta «Egin»-i horren erdia baino zerbait gehixeago sartu zaien garaian, «Egunkaria»-ri ez zaio bi milioi eta erdira iritsi sail horietatik kontratatutakoa.

Jaurlaritzaren inguruko erakunde publiko batzuetatik bultzatutako zenbait kanpaina kontuan hartzen baditugu, publizitate moduloetan neurtuz, «Deia»-ri adibidez 8.317 modulo kontratatu zaion gaietan, «Correo»-ri 5.794, «DV»-ri 4.285, «Egin»-i 1.552, eta «El Mundo»-ri 1.080 (azken hauek zazpi hilabetetan). «Egunkaria»-ri 925 modulo iritsi zaio. Dirutan neurtuz, gonbarazioa egitearren, kanpaina hauetan «Deia»-ri ia 80 milioi sartu zaion orduan, «Egunkaria»-k zazpi milioi pasatxo jaso du.

**JAURLARITZAZ** gain Bizkaiko Foru Aldundiak, estreineko sarrera testimonial batzuk kenduz gero, publizitatea sistematikoki ukatzen dio «Egunkaria»-ri.

Sintomatikoak gertatu dira, baita ere, Donostiako eta Bilboko Udalen jarrerak. Biak, joan zen urteko huteskundearen aurretik ia publizitate ekintza guztiak kontratatzen zituzten «Egunkaria»-n ere. Udalbatza berrien



**JOXEMI ZUMALABE**

«Egunkaria»-ko Kontseilari Ordezaria

ondoren, Donostiakoan, zortzitik batera jaitsi zen kontratazioa, irailetik aurrera erabat ukatuz; eta Bilbokoari dagokionean, hamabitik batera.

Udal hauen jarrerari gagozkiolarik, gainera, udalak ordaindutako harpidetzak ere ia erabat hutsean utzi dituzte: Bilbokoak, 114tik 9 baino ez ditu mantendu 1992rako, eta Donostiakoak, Euskararen Patronatoak egindako 78 harpideak kendu egin ditu.

Beste datu esanguratsurik ere bada: ETBk joan den urteko martxoaz geroztik ez du publizitaterik sartu «Egunkaria»-n, eta «Egunkaria» izan da ETBren azken bi kanpaina nagusietatik kanpo utzi den medio bakarra. HABEk ere iazko martxoaz gero utzi zion «Egunkaria»-n publizitatea egiteari.

Konpetibitatearen kanpaina erraldoian —gutxi gora behera, hirurehun milioi inbertitu duten horretan—,

«Egin»-ekin batera, kanpoan gelditu gara. Azken honetan, gainera, publizitate agentziak hamabost orrialde oso hitzartu eta gero, azken orduko erabaki politikoak iritsi ziren eta kendu egin ziguten osorik.

**BEHIN** eta berriz, egoera berari aurre egin behar diogu. Publizitate teknikoek gure egunkaria kontuan hartzen badute ere, maila politiko horietara joandakoan, euskaldun egunkari bakarra, publizitate presu-postu horietatik kanpo gelditzen da.

Publizitate ofizialaren arlo desberdinetan «Egunkaria»-rekiko jarrera normalizaturik ez aurkitzeak, «Egunkaria»-ri urteko ehun bat milioitako galera dakarkio, eta kopuru horren eragina neurtzeko, interesgarria izango da jakitea 1991 urtean «Egunkaria»-n publizitate atalean izan dugun sarrera orokorra 146 milioitakoa izan dela.

Eusko Jaurlaritzak 1991 urteko aurrekontuetan, hasi berria zen euskal egunkari bakarrari laguntza txiki-ekienik ematea ez zuen kontuan hartu. 1992 honetan, iadanik euskal gizartean erroturik, eguneroko batz besteko 44.000 irakurle aitortzen zaion unean, euskaltzale sail desberdinen sinesgarritasuna erabat irabazia daukanean, «Egunkaria»-k ez duela laguntzarik izango esan berri digu Eusko Jaurlaritzako Kultur sailburua den Joseba Arregik.

Eusko Jaurlaritzaren euskarazko egunkariaren proiektu ofiziala, bi euskal egunkarirentzat tokirik ez omen dagoenez, eta bat kalean dagoenez, hozkailuan sartua daukala ere esan digu.

Bakoitzak atera ditzala kontuak.